Ayuntamiento de Pamplona | Iruñeko Udala

T. 948 420 100 / 010
www.pamplona.es/e

DEIALDIA, BARNE IGOERA MURRIZTUAN OPOSIZIO BIDEZ BETETZEKOA IRUÑEKO UDALAREN ZERBITZUKO ZERBITZU ANITZEKO PEOIAREN (HILERRIKO ATEZAINA) 1 PLAZA ETA LABORATEGIKO ZERBITZU ANITZEKO PEOIAREN 1 PLAZA

IZANGAI ONARTUEN ETA BAZTERTUEN BEHIN BETIKO ZERRENDA. PROBA EGITEKO EGUNA ETA TOKIA.

Giza Baliabideetako Alorreko zuzendariak honako ebazpen hau eman zuen 2026ko irailaren 11an:

Tokiko Gobernu Batzarrak Iruñeko Udalaren zerbitzura aritzeko zerbitzu anitzeko peoiaren (hilerriko atezaina) 1 plaza eta laborategiko zerbitzu anitzeko peoiaren 1 plaza barne-igoera murriztuan oposizio bidez betetzeko deialdia onetsi zuen 2026ko ekainaren 4an, eta argitara eman zen 2026ko 115. Nafarroako Aldizkari Ofizialean, ekainaren 15ekoan. Bat etorriz deialdi horretako laugarren oinarriarekin, honako hau EBATZI DUT:

1.- Izangai onartuen eta baztertuen behin betiko zerrenda hau onestea:

Zerbitzu anitzeko peoiaren (hilerriko atezaina) plaza. Onartutako izangaiak:

ABIZENAK ETA IZENA
LÓPEZ GARCÍA, PETRA
TOLEDO MARTIRENA, RAÚL

Laborategiko zerbitzu anitzeko peoiaren plaza. Onartutako izangaiak:

ABIZENAK ETA IZENA
ELCANO ELCANO, MARÍA JOSE

Baztertutako izangaiak:

ABIZENAK ETA IZENA	**BAZTERTZEKO ARRAZOIAK**
FLÓREZ ALZATE, HUMBERTO	2.1

Legenda: a) Iruñeko Udaleko langile finkoa ez izateagatik, jardunean, zerbitzu berezietan edo eszedentzia berezian, zerbitzu anitzeko peoi (hilerriko atezaina) edo laborategiko zerbitzu anitzeko peoi lanpostuetan.

2.-Jakitera ematea deialdiaren 6.3 oinarrian jasota dagoen proba **2026ko urriaren 29an, ostegunarekin, eginen dela, 16:00etan, Zapatería kaleko 40an dagoen bilera-gelan (beheko solairuan).**

3.- Izendapena Iruñeko Udalaren webgunean (www.pamplona.es/eu) argitara dadila agintzea.

Ebazpen honen aurka honako errekurtso hauetako bat paratzen ahal da:

- Berraztertzeko errekurtsoa, egintza gauzatu duen organoari zuzendua, hilabeteko epean, ebazpen hau Iruñeko Udalaren webgunean argitaratu eta biharamunetik aitzina.

- Gora jotzeko errekurtsoa, Nafarroako Administrazio Auzitegiari zuzendua, hilabeteko epean, ebazpen hau Iruñeko Udalaren webgunean argitaratu eta hortik aitzina.

- Administrazioarekiko auzi-errekurtsoa, Iruñeko Auzialdiko Auzitegiko administrazioarekiko auzien atalari zuzendua, bi hilabeteko epean, errekurritutako egintza edo erabakia jakinarazi edo argitaratu eta biharamunetik aitzina.

Iruñean, 2026ko irailaren 11an.- Giza Baliabideetako Alorreko zuzendaria, Xabier Burgui Vergara.